



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 16koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio TAO txartelak emateko tasak dirutan ordaintzea ahalbidetzea eta, zentzu horretan, bere zerga Ordenantzaren testua aldatzea.

Aurrekariak

1. Erreklamaziogileak desadostasuna adierazi du, Gasteizko Udalak 2011rako onartuta zerga eta prezio publikoen ordenantzak, ordaintzeko bide, banku helbideratzea baino jasotzen ez dutelako TAO txartelak emateko. Zerga zorra ordaintzeko moduak mugatze hori, dioenez, 2009ko ekitaldiari dagozkion zerga ordenantzetan sartu zen.

Argudiatzen duenez, 2010eko urtarrilean udal bulegoetara joan zen TAO egoiliar txartelaren tasa ordaintzera eta funtzionarioak dirutan ordaintzea onartzeari uko egin zion. Esan zionez, banku helbideratzearen bidez baino ezin zen ordaindu.

2. 2011n, kaltetuak, udalaren aurrean erreklamatu ondoren, auzo defendatzaile sindikoarengana jo zuen eta hark, 2011ko ekainaren 22an, gomendio bat egin zion Gasteizko Udalari. Hitzez hitz, honela dio: *"RECOMENDAMOS que sean tenidas en cuenta estas alegaciones de manera que en la próxima redacción de las Ordenanzas Fiscales y Precios Públicos para el ejercicio 2012, en concreto en la Ordenanza reguladora de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial de los bienes de dominio público -la normativa fiscal reguladora del estacionamiento de vehículos- en el texto que desarrolla las condiciones particulares para la concesión de tarjetas de OTA se prevea la posibilidad del pago en metálico, bien directamente bien a través de depósito en cuenta corriente del Ayuntamiento"*.
3. Gasteizko Udalak ez zuen gomendioa onartu, haren iritziz helbideratzeak ez zuelako kalte ekonomikorik edo herritarren deserosotasunik sortzen. Aitzitik, argudiatu zuen ez zietela herritarrei betebeharrarbitrarioz ezarri nahi, bizimodu modernoaren eskakizunek banku erakunde batekin edo batzuekin lan eginarazten dutelako eta, ondorioz, gutxienez banku kontu bat edukiarazi.





Halaber, bere txostenean, Zerga Kudeaketaren Zerbitzuak adierazi zuen, 2009an "TAO egoiliar txartela"ren ordainketa ezarrita, 1999az geroztik "TAO merkatari txartela" eskatu eta berritzeko sisteman erabilitako filosofia bera aplikatu zela.

Filosofia horren bidez txartela lortu eta berritzea ahalik eta simple eta errazen jarri nahi zen, eta, herritarrei zerbitzu eraginkor eta erosoagoa emateari begira, izapidetzean gerta zitekeen disfuntzio oro saihestu.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua, emandako agiriak eta indarrean dagoen legedia ikusita, egokia deritzogu honako oharbideak igortzeari:

Gogoetak

1. Kexaren planteamenduari heldu behar diogu, Gasteizko Udalak onartutako zerga ordenantzek jasotako xedapenen arabera, baina batez ere, horri buruz, udal ordenantza horiei babesa eta euskarria ematen dizkieten foru arauak xedatzen duten arauketaren arabera.

Egia da Gasteizko Udalak, 2010eko abenduaren 29ko ALHAOn, *2011ko ekitaldirako Zerga Ordenantzak eta Prezio Publikoak* testua argitaratu zuela; haien artean, *Udalaren Jabetza Publikoko Ondasunak Pribatiboki Erabiltzearen edo Haien Baliatze Bereziaren Tasak Arautzen dituen Ordenantza* dago. Ordenantza horrek, 6. atalean, hiri trafikoaren arauketa eta kontrolagatiko eta ibilgailuak aparkatzeagatiko tasei heltzen dio. Zehazkiago, TAO txartelak emateko arauetan ordenantzak honakoa dio: ***"Bigarren eta bigarren bis (merkatari eta egoiliar txartelen) tarifen ordainketa nahitaez helbideratu beharko da banketxe baten bitartez"***

Bestalde, *Udalaren Jabetza Publikoko Ondasunak Pribatiboki Erabiltzearen edo Haien Baliatze Bereziaren Tasak Arautzen dituen Ordenantza* aipatuarekin batera onartu eta argitaratu zen Gasteizko Udalaren *Zergen eta Zuzenbide Publikoko beste Diru-sarrera lokal batzuen Gestio, Zergabilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorrak* honakoa dio horri buruz:

"64. artikulua.- Zergen eta salneurri publikoen ordainketa.

1.- Vitoria/Gasteizko Udalaren zergak, salneurri publikoak eta zuzenbide publikoko gainerakoak ordaintzeko bideak honako hauek dira:

- ***Legezko erabilerako dirua.***
- *Txekea.*



- *Posta bidezko igorpena.*
- *Kreditu txartelak.*

Txekeak, merkataritza legeriak eskatzen dituen baldintza orokorrak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko ditu:

- a) Vitoria/Gasteizko Udalaren aldeko izenduna izatea.*
- b) Eman zen eguneko bertako edo aurreko bietako bateko data edukitzea*
- c) Igorri duen entitateak adostuta edo egiaztatuta egotea.*
- d) Igorri duenaren izena edo izen soziala sinaduraren azpian adieraziko da argi eta garbi.*

2.- Zergaren edo salneurri publikoren baten edozein diru-sarrera eta gainerako zuzenbide publikoko diru-sarrerak burutu ahal izateko, eskatutako agiriak aurkeztuz egin beharko da onartua izan dadin. Ordainketaren ziurtagiriek honako hauek adierazi beharko dituzte behinik behin:

- *Zordunaren izena eta deiturak, izen soziala edo izendapena.*
- *Helbidea.*
- *Zerga edo salneurri publikoa eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak eta dagokien aldia.*
- *Kantitatea.*
- *Kobrantza-eguna.*
- *Zein organok luzatzen duen.*

3.- Aldian behingo epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharrekoak diren zergen, salneurri publikoen eta zuzenbide publikoko diru-sareren ordainketa bankuko helbideratze bidez egiten ez denean eta aldian behingoak ez diren zergen edo salneurri publikoen ordainketa ere, Vitoria/Gasteizko Udalak edo Diru Bilketarako Zerbitzuak erabakitako entitate finantzarioren bitartez egingo da...”

Kudeaketa, gestio eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokor horrek ordainagirien banku helbideratzea ere arautzen du, baina aukera ematen du subjektu pasiboentzat ordainketa erdia hautazkoa izateko. Zehazki, 63. artikuluan honakoa xedatzen du:

“1.- Udal-zergen eta salneurri publikoen subjektu pasiboek egoki deritzen Erakunde Finantzariotan *helbideratu ahal izango dituzte ordainketak*, honako artikulua honetan ezarritakoaren arabera. Ekintza horrek ezin izango du inolaz ere prozedura mailako bermeen galerarik ekarri, ez eta egoki deritzen helbideratutako likidazio edota ordainagirien aurka errekurtsioak aurkezteko aukerarik eman ere.”

Bestalde, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak honakoa xedatzen du:



“59. artikulua. Ordaintzeko moduak.

- 1. Zerga-zorra eskudirutan ordaindu behar da. Erregelamenduz xedatzen den kasuetan efektu tinbredunen bitartez ordaindu ahal izango da.*
- 2. Aparteko kasuetan, Zerga Administrazioak, egokiesten dituen txostenak egin eta gero, zerga-zorra zeinahi ondasun edo eskubide emanez ordaintzea onartu ahal izango du, borondatezko epealdian zein betearazpen-aldian.*
- 3. Zerga-arautegian zerga-zorra eskudiruz edo gauzaz ordaintzeko bideak eta moduak arautuko dira, bai eta ordainketa teknika eta bi tarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egiteko betekizunak eta baldintzak ere.”*

Alegia, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak -Zergen Lege Orokorrarekin batera-, ordaintzeko modu orokor, dirutako ordainketa xedatzen du eta aukera gehigarri arautzen du ordainketa beste bitarteko batzuen bidez egin ahal izatea. Beraz, onartu behar da dirutako ordainketa zerga zorrak ordaintzeko lehentasuna duen modu orokorra dela.

Banku helbideratzea zerga zorrak ordaintzeko hautazko bidetzat eta, beraz, zergapekoek hauta dezaketen bidetzat jotzea Arabako Lurralde Historikoaren Zergabilketaren Arautegi Orokorra onartzen duen 1994ko maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuko arauketaren azpian dago. Foru dekretu horrek Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren alderdi horiek garatzen ditu eta honakoa xedatzen du:

“23. artikulua Ordaintzeko erak

1. Zerga zorrak eta zergaz kanpokoak **dirutan** edo tinbredun efektuak erabiliz ordaindu beharko dira, arautzen dituzten arauak xedatzen dutenaren arabera (...)

2. Xedapenik ezean, ordainketa dirutan egin beharko da...”

27. artikulua Legezko dirua

“Dirutan ordaindu behar diren zor guztiak legezko diruz ordaindu ahalko dira, zein ere diren ordainketa jaso behar duen erakunde biltzailea, bilketa egiten den aldia eta zorraren zenbatekoa.”

121. artikulua Helbideratzea gordailu erakundeetan

“1. Zordunek Arabako Lurralde Historikoan bulegoa duten gordailu erakundeetan irekitako kontuetan helbideratu ahalko dituzte kapitulu honek aipatu zorrak...”

Banku helbideratzea ordaintzeko hautazko bidea izatean oinarrituta baino ezin da ulertu Toki Ogasunak arautzeko uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 9.



artikuluak jasotzen duen xedapena, zeinen arabera: *“Udalek, euren zerga ordenantzek xedatutako baldintzetan, kuotaren %5 arteko hobari bat ezarri ahalko dute aldian aldiko epemuga duten zorrak finantza erakunde batean helbideratu, ordainketak aurreratu edo diru-sarreraren bilketa laguntzea dakarten jarduketak egiten dituzten subjektu pasiboen alde.”*

2. Kexak elementu gehigarri bat eman du; izan ere, erreklamaziogileak ahalegina egin zuen udal bulegoetan legezko diruz ordaintzeko TAO egoiliar txartela egiteko tasa.

Horri dagokionez, azpimarratu behar dugu ezin dela zalantzan jarri legezko dirua ordaindu beharreko zerga zor eta zehapen guztiak ordaintzeko erabil daitekeela, zein ere diren erakunde biltzailea, biltzeko aldia eta zenbatekoa.

Zirkulazioan dauden txanponak eta billeteak, ordaintzeko bide orokor eta derrigorrezko izateko edo betebeharrak betetzeko Estatuak sortutako dirua izanda, legezko diruari emandako ezaugarriak dauzkate, hots, orokorrak dira, edozein betebeharrak betetzeko balio dutelako eta derrigorrezkoak direlako, hartzekodunak ezin duelako legez arbuiatu. Legezko moneta emateak, beraz, ordaintzeko betebeharratik askatzeko ondorio juridiko erabatekoak dauzka.

Euroa sartzeari buruzko abenduaren 17ko 46/1998 Legeko 3. artikulua honakoa dio: *“eurotako billeteak eta txanponak legezko erabilerako bakarrak izango dira nazio lurraldean”* eta argitzen du moneta bat legezko bihurtzeak billete eta txanpon horiekin zor bat ordaintzen denean hari ezin uko egitea dakarrela.

Xedapena herritarren erosotasuna sinpletu eta erraztu nahian sartu izana kaltetu gabe, eta, bestalde, orokorrean zalantzan jarri ez bada ere, ondorioztatu behar da TAO txartelak emateko baldintza bereziek jasotzen duten ordainketa bideen murrizketak toki erakunde horren ahalmenak gainditzen dituela eta ez daukala babesik foru araudian.

Horri buruz, Toki Ogasunak arautzeko uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 7. artikulua jasotzen dituen xedapenak ekarriko ditugu hona. Haien arabera:

“1. Arabako Lurralde Historikoko Udallerri dagokie, honako Foru Arau honez ezarritako esparruan dagozkien zergen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketa, Udal Zergen Foru Arau Erregulatzailerean eta beren garapenerako emandako gainerako xedapenetan ezar daitezkeen espezialitateen kalterik gabe, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko emandako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.



2. Arabako Lurralde Historikoko udalerriek, euren zerga ordenantzen bidez, arestiko idatz-zatiak aipatu araudia haietako bakoitzaren barne antolakuntza eta funtzionamendu araubideari egokitu ahalko dute, baina egokitzapen horrek ezin izango da araudi horren eduki materialaren kontrakoa."

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

51/2011 GOMENDIOA, abenduaren 16koa, Gasteizko Udalari egina

Udalaren Jabetza Publikoko Ondasunak Pribatiboki Erabiltzearen edo Haien Baliatze Bereziaren Tasak Arautzen dituen Ordenantza, TAO txartelak emateko baldintza bereziei buruzko atalean, alda dadila, legezko diruaren bidez ere ordaindu ahalko direla bermatzeko xedez.

Herritarreko TAO txartelen zenbatekoa dirutan ordaindu ahal izateko behar diren bitartekoak jar daitezela.

